

PROMOTION DE LA LANGUE BASQUE DANS LA VIE SOCIALE AUPRES DES OPERATEURS PUBLICS ET PRIVES

EUSKARAREN PRESENTZIA SUSTATZEA BIZI SOZIALEAN, ERAGILE PUBLIKO ETA PRIBATUEI BEGIRA

DOCUMENT METHODOLOGIQUE

L'Office Public de la Langue Basque est un organisme public créé sous la forme d'un Groupement d'Intérêt Public, constitué par l'Etat, la région Aquitaine, le département des Pyrénées Atlantiques, le syndicat intercommunal de soutien à la culture basque et le conseil des élus du Pays Basque ayant pour objet de définir et de mettre en œuvre une politique linguistique en faveur du développement de l'utilisation de la langue basque.

Dans le cadre de son projet de politique linguistique adopté en Décembre 2006, l'OPLB est ainsi chargé d'initier et de mener des démarches en faveur de l'utilisation de la langue basque auprès des acteurs privés ou publics.

Afin de renforcer sa capacité d'animation auprès des opérateurs et de prendre le mieux possible en compte les réalités locales, l'Office Public s'appuiera sur un réseau structuré de techniciens de la langue basque, dont les activités menées localement s'organiseront, du point de vue des principes et des méthodes, en harmonie avec la démarche voulue par l'Office. Ces agents cofinancés par l'Office Public seront recrutés par les Communautés de Communes volontaires.

Le mode opératoire à mettre en œuvre avec chacun des organismes, s'articule autour des étapes suivantes :

- prise de contact avec l'organisme ;
- formulation d'un accord de principe de l'organisme à s'engager dans la démarche ;
- travail technique organisme/OPLB (ou organisme/Technicien de la langue) pour étudier les possibilités de développement de l'usage de la langue basque ;
- élaboration concertée d'un projet de convention entre l'organisme et, l'OPLB (et la Communauté de Communes selon les cas) précisant les orientations retenues, les modalités d'accompagnement technique par l'OPLB (ou par le technicien) et les éventuelles

METODOLOGIAZKO DOKUMENTUA

Euskararen Erakunde Publikoa ofizialki sortua izan da joan den 2004eko Azaroaren 26an. Interes Publikoko Elkargo gisa antolatua da eta Ipar Euskal Herriko instituzio ezberdinek osatzen dute : Estatuak, Akitaniako Eskualdeak, Pirinio Atlantikoetako Departamenduak, Euskal Kultura Sustengatzen duen Herrien Arteko Sindikatuak eta Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluak. EEPren eginbehar nagusia, euskararen erabileraren aldeko hizkuntza politika baten finkatze eta gauzatzea da.

2006ko abenduan onartua izan den hizkuntza politika proiektuaren baitako aktibitate programak zehazten duen bezala, Euskararen Erakunde Publikoaren gain da euskararen erabileraren aldeko urratsak eta ekintzak abiatzea eta gidatzea eragile pribatuen eta publikoei begira.

Tokiko eragileekiko animazio ahalmenen azkartzeko eta tokiko egoerak hobekiago kontutan hartzeko, Euskararen Erakunde Publikoa euskara teknikariak osatutako sare batekin ariko da. Gainera, garrantzitsua da tokian toki garatuak diren ekintzek EEPk daraman desmartzarekin bat egin dezaten, printzipio eta metodoen ikuspuntutik. Interesatuak izango diren herri elkargoek dituzte teknikari horiek kontratatuko (EEPre laguntzarekin).

Eragileekin harremanetan sartzeko jardunbidea ondoko urratsek egituratzen dute:

- Eragilearekin harremanetan sartzea;
- Desmartzan engaiatzen dela dion printzipiozko akordio baten formulazioa eragilearengandik ;
- Eragilearen eta EEPren arteko (edo eragilearen/hizkuntza teknikariaren arteko) lan teknikoa, ikusteko zein diren euskararen erabileraren garatzeko ahalbideak ;
- Elkar adituz finkatuko den eragilearen eta EEPren arteko (eta kasuaren arabera, Herri elkargoaren arteko) hitzarmen proiektu baten plantan jartzea. Horrek, onartutako norabideak, EEPren (edo teknikariaren)

aides financières à mobiliser ;


- examen du projet de convention par le Conseil d'Administration de l'OPLB (et la Communauté des communes selon le cas) et l'instance décisionnelle de l'organisme concerné ;
- signature de la convention et mise en œuvre.

segipenaren jardunbidea eta posiblezko dirulaguntzen mobilizazioa zehaztuko ditu;

- Hitzarmen proiektuaren azterketa EEPko Administrazio Kontseiluaren eskutik (eta Herri Elkargoari egoeraren arabera) eta hunkitua den eragilearen batzar erabakikorren eskutik;
- Hitzarmenaren izenpetzea eta martxan jartzea.

Le travail est mené selon le cas, soit directement par les services de l'OPLB, soit en partenariat avec les Communautés de Communes qui s'appuient sur un réseau de technicien de la langue (agents public rattachés aux Communautés de Communes)

Egoeraren arabera EEPko zerbitzuak zuzenean eramaten du lana, edo bestela, Herri elkargoarekin partaidetzan hizkuntza teknikarien sarearen bidez (Herri elkargoarekin lotua den lanquile publikoa).



La démarche mise en œuvre par l'Office Public de la langue basque dans le cadre de la présence de la langue basque dans la vie sociale s'adresse à tout opérateur (service public, collectivité, association, entreprise, organisateurs d'événements sportifs ou culturels,...) volontaire. Elle a pour objectif de développer la place et l'utilisation de la langue basque dans la structure partenaire sur la base d'un travail concerté d'analyse et de diagnostic.

Phase 1 : engagement de l'opérateur

Un opérateur peut solliciter l'Office Public de la langue basque ou la Communauté de Communes ou ces derniers peuvent prendre l'initiative de solliciter un opérateur.

Phase 2 : Production d'un diagnostic

Les services de l'Office Public et/ou le technicien et les personnes désignées par l'opérateur partenaire élaborent ensemble un diagnostic repérant les grandes fonctions de l'entreprise, ciblant plus particulièrement les supports et les activités de communication avec le public.

Pour chacun des domaines repérés, il est examiné de quelle manière une place plus importante pourrait être donnée à la langue basque → Différentes variantes peuvent être imaginées.

Il convient également de repérer à quelles conditions il serait possible de permettre une présence plus forte de la langue basque : contraintes techniques ou budgétaires éventuelles.....

Le diagnostic est élaboré progressivement sur la base des informations transmises par l'opérateur et des différents contacts établis avec les différents interlocuteurs désignés. La première rédaction est effectuée par l'OPLB et/ou par le technicien et soumise à l'opérateur.

Cette étape a pour objet de permettre à l'OPLB de bien s'imprégner du fonctionnement de l'opérateur et de ses contraintes et de définir le champ des possibles.

Le document rédigé est purement technique et confidentiel.

Phase 3 : Sur la base de ce document l'opérateur définit les priorités à dégager, les domaines qu'il souhaite mettre en œuvre, les délais d'application envisagés.

Phase 4 : Contact OPLB (et/ou Communauté de communes) /opérateur pour acter les engagements pris et préparer la convention

Phase 5 : Signature convention et communication

"Euskararen presentzia bizi sozialean sustatzea" deitu sailean, Euskararen Erakunde Publikoak bultzatuko duen desmartxa borondatezko eragile guzietan proposatua izango zaie (zerbitzu publiko, kolektibitate, elkarte, kirol edo kultur ekintzen antolatzaile....). Desmartxa honen helburua da euskararen presentzia eta erabilera garatzea eragilearen egitura eta jardueretan, partaidetzan eramandako azterketa eta diagnostiko lan batean oinarrituz.

Lehen urratsa : eragilearen engaiamendua

Eragile bat Euskararen Erakunde Publikoarekin edo Herri Elkargoarekin harremanetan sar daiteke edo azken hauek eragile batengana joan daitezke.

2. urratsa : diagnostiko bat finkatzea

EEP-ren zerbitzuek edota teknikariek eta eragileak izendatutako arduradunek elkarrekin finkatzen dute eragilearen funtzioei buruzko diagnostiko bat, komunikazio materiala eta jarduerak bereziki zehaztuz.

Funtzio edo jarduera arlo bakoitzarentzat, euskararen presentzia eta erabilera azkartzeko aukerak aztertuko dira → aterabide ezberdinak asma daitezke kasuen arabera.

Euskararen presentzia egituren azkartzeko aurki daitezkeen oztopoak zehaztuko dira ere : baldintza teknikoak, diru mailako oztopoak...

Diagnostikoa, eragileak emandako xehetasunek eta solaskideekiko harremanek elikatua da. Idazlana Euskararen Erakunde Publikoko zerbitzuei doakie edota teknikariei. Eta gero, eragileari proposatzen zaio.

Fase horrek EEP-ri parada ematen dio eragilearen barne ibilmoldearen informazioa bereganatzeko eta euskararen presentziaren azkartze bidean egon daitezkeen oztopo eta ahalbideen zehazteko.

Dokumentua guztiz teknikoa da eta ez da publikoa izango.

3. urratsa : dokumentu horretan oinarrituz, eragileak hautatzen ditu : lehentasunak, gauzatu nahi dituen engaiamenduak, eta horien gauzatzeko finkatzen dituen epeak.

4. urratsa : EEPren (edota Herri elkargoaren) eta eragilearen arteko kontaktua engaiamenduen zehazteko eta hitzarmenaren idazteko

5. urratsa : hitzarmenaren izenpetzea - komunikazioa

Phase 6 : Mise en place des mesures et suivi

L'opérateur est responsable de la mise en place des mesures ; les services de l'Office Public et/ou le technicien de la Communauté de Communes assurent une fonction d'accompagnement technique et éventuellement financier dans les conditions décrites dans la convention signée entre les deux organismes.

Les modalités de suivi sont définies dans la convention ainsi que le rôle que l'Office Public et la communauté de Communes y jouent.

6. urratsa : neurrien gauzatzea – jarraipena

Engaiamenduen gauzatzea eragileari dagokio; EEPren zerbitzuek edota herri elkargoko teknikariek laguntza teknikoa segurtatzen dute, bai eta ere kasuen arabera, diru laguntza bat ekartzen, bi partaideen artean izenpetu hitzarmenak finkatu baldintzen arabera.

Bestalde, hitzarmenak jarraipen jardunbidea eta EEPk eta Herri elkargoak bertan dauzkaten ardurak zehazten ditu.